



KOKAINE

KOKAINE



PARTAIDEAK:

Alejandro Pérez
Joseba Lasa
Asier Divasson
Leire Nazabal



KOKAINE

Gure taldea Kokaine taldea da eta gure proiektua pixka bat abstraktua da, base zientifikoa ez delako gurea eta produktua oraindik ez dagoelako guztiz garatua. Gure enpresak kokainarentzat farmako bat egingo du, haren kontsumitzaileak desintoxikatzeko eta sendatzeko. Guk lokal bat edukiko dugu, non bezeroei informazioa emango diegu, gainera, hitzaldiak emango ditugu eskoletan, enpresetan, etab. Hori alde batera utzita, publizitate asko egingo dugu produktu berria delako eta ezaguna egin beharko dugulako.

PRODUKTUA:

Orain dela urte asko dakigu gizakiok entzima bat dugula **kokaina zati ez kaltegarrietan zatitu** dezakeela, baina entzima horiek denbora asko behar dute odolera pasatzeko eta ez dute odolean denbora asko irauten. Horregatik, Chicagoko Unibertsitateak aurrera darama ikerketa bat non **kokainaren efektua deuzestatzen** duten zelula-ama batzuk (**genetikoki aldatuak**, hasierakoak baina 44.000 aldiz indartsuagoak direnak) garatzen ari dira. Zelula hauek saguetan soilik probatu dira eta efektu sekundarioak badituzten ala ez ikertzen ari dira. Gizakietan funtzionatu ezker, 30 urteetako kokainaren aurkako txerto moduko bat da, **drogazaleen nahia eta kokainaren efektuak murrizten** dituenak. Beraz, proiektu honen helburua zelula horiek gizakietan probatzea (ikerketa taldeak egingo duena), merkatura ateratzea, publizitatea prestatzea eta enpresa baten beste alderdi guztiak prestatu eta aztertzea da.

